

# Premium



IMANOL EPELDE PAGOLA  
27zapata.eus

Euskaraz egiten dugu, baina ez osoki: *half & half*. Kafesnea bezala. Batzuetan esne gehiagorekin, beltzagoa besteetan. *Se me escapa* zenbat gaztelania sartzen zaidan egunero, zenbat frantses, *sans m'en rendre compte*. Hori omen naturalena, normalena. Badakizue: *la realidad supera la ficción*. Eta, antza, hizkuntza-alternantzia da gure *superpower*-a. Ez dugu hegan ikasiko sekula, baina, esaldi erdian salto linguistiko ikusgarriak egiten bai.

Goizean, seme zaharrenak esan dit: "*No me da la vida*". Ohera sartu da eta *frito* geratu da, *como un tronco*. Seme txikienak, berriz, galdera zuzena jaurti dit, inolako filtrorik gabe: "Aita, euskaraz ari gara, ez?". Eta batek pentsatu dezake: "*Depende del contexto, cariño*". Hori baita gure mantra berria. Tes-tuingurua. Gure erlijio berria.

Adibidez. Orain, *meeting* bat dugu lanean, baina *no pasa nada*. Aurkezpena euskaraz, galderak gaztelaniaz, txistek ere erdaraz hobeto funtzionatzen dutelako, eta ondorioak... bueno, *on verra*. Denok ulertzen dugu elkar, eta *eso es lo importante*. Euskara ez da galtzen, *se transforma, il evolue*.

Eta transformazio horretan, aitortu beharra dago, *guapo* geratzen dela: euskara *cool*, modernoa, *in progress*. Euskara likidoa, moldakorra, *user friendly*. Egin klik hemen eta *suscribe* gure hizkuntza berrira. Basque 2.0, *Premium version, con todas las mejoras incluidas*: errudun-sentimendurik gabea.

Etxera bueltan, irratiak ozen dio: "Ojo! Hizkuntzen arteko mugak lausotzen ari dira". Eta nik: "*Totalmente de acuerdo*". Mugen kontu hau beti izan da problematikoa. Hizkuntzetan ere bai. Ez da harritzekoa, *le monde va à la cave*, mundua trastera doa. Eta guk, polita geratzen denez, *plato combinado* bihurtu dugu dena: ideiak, identitateak, esaldiak. Beti natural, beti *espontáneo, sans complexes*.

Denbora da kafea hutsik, ahal den luzeena eta azukrerik gabe eskatzen dudala. Uste dut badakidala zergatik. ●

